

Eskaerak aurkezteko epea:

20 egun natural, deialdia BOEn argitaratzen denetik aurrera: maiatzaren 30etik ekainaren 18ra.

Eskaera deskargatu eta bete. Beteta dagoenean, inprimatu, sinatu, eskaneatu eta honako posta helbide honetara bidali:

- musikaeskolaadmin@getxo.eus. Adierazi "OPE 2019 eta, jarraian, eskatzailearen izena eta bi abizenak".
- Getxoko Andres Isasi Musika Eskolara bidali edo bertan entregatu behar da (Mesedeetako kalea, 6, 48930 Getxo) astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:30era.

Eskaerarekin batera, dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu behar da.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Izena emateko epea amaitu ostean, hautaketa prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Zerrenda Musika Eskolako iragarkien taulan, www.getxo.eus webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10 egun balioduneko epea egongo da, BAOn argitaratzen denetik aurrera, akatsak zuzentzeko.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki.

Onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera, lehenengo ariketaren data, ordua eta tokia argitaratuko dira.

Programazio didaktikoa eta frogagiriak entregatzea (oinarri espezifikoak)

Onartuen behin betiko zerrendak argitaratu eta hurrengo 20 egunen ostean, hautagaiek 5 egun natural izango dituzte honako hauek aurkezteko:

- Merezimenduen baloraziorako frogagiriak.
- Programazioa eta unitate didaktikoa, hala dagokion kasuetan.

Hamaikagarren oinarri orokorrean jasotako gaitasun-baldintzak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztea

20 egun naturaleko epea, gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita